



BIOSISTEMAK

**EUSKAL
OSASUN
IKERKUNTZA**


**INVESTIGACIÓN
VASCA
EN SALUD**

**BASQUE
HEALTH
RESEARCH**

MEMORIA ZIENTIFIKOA

2025

B Accelerator Tower (BAT)
Gran Vía 1
48001 Bilbao (Bizkaia)
bio-sistemak@bio-sistemak.eus
Telefona: 94 400 77 90

 www.bio-sistemak.eus

 [linkedin/biosistemak](https://www.linkedin.com/company/biosistemak)



| | |
|--|----|
| 1. 2025ko mugarriak | 6 |
| 2. Erakundea | 9 |
| 2.1. Gure nortasuna | 10 |
| 2.2. Organigrama | 11 |
| 2.3. Egitura zientifikoa | 13 |
| 2.4. Ikerketa-taldeak | 14 |
| 3. Baliabideak | 15 |
| 3.1. Giza baliabideak | 16 |
| 3.2. Baliabide zientifiko-teknikoak | 18 |
| 3.3. Baliabide ekonomikoak | 19 |
| 4. I+G+b jarduera | 21 |
| 4.1. Proiektuak | 23 |
| 4.2. Sareak eta lankidetzak | 39 |
| 4.3. Komunikazioa eta hedapena | 42 |
| 5. Emaitzak | 48 |
| 5.1. Ekoizpen zientifikoa | 49 |
| 5.2. Euskal osasun-sisteman duen eragina | 52 |
| 6. Eranskina | 53 |
| 6.1. Argitalpen zientifikoak | 54 |



2025KO MUGARRIAK

2025ean, Biosistemak Institutuak indartu egin du Euskadiko, estatuko eta nazioarteko esparruetan presentzia sendoa duten osasun-sistemen ikerketan erreferentzia gisa duen eginkizuna. Lantalde 23 profesionalek osatzen dute, eta **Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuetako (ESI) 300 espezialista baino gehiago** eta nazioarteko **600 erakunde bazkide inguru** biltzen dituen lankidetzasare batekin osatzen da.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin, Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, Berrikuntza, Ikerketa eta Osasunaren Euskal Fundazioarekin (BIOEF) eta beste BIO institutu batzuekin lerrokatuta, Institutuak Euskadiko osasun-sistemaren garapena bultzatu du, ezagutza metodologikoarekin eta **eraginkortasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna** sustatzen dituzten politika berritzaileetako laguntzarekin, osasuna eta gizarte-ongizatea hobetzera bideratuta.

Jarduera zientifikoaren ondorioz, lider eta partaide izan da **Europako 10 proiektutan**, Eusko Jaurlaritzak finantzaturako 14 proiektu autonomikotan eta Carlos III.a Osasun Institutuaren 4 proiektutan, eta 17 proposamen ere aurkeztu ditu. Institutuaren ekoizpen zientifikoak **56 argitalpen eta 21 hitzaldi** biltzen ditu nazioarteko kongresuetan.

2025eko Memoria Zientifiko honek Institutuaren jarduerak, emaitzak eta inpaktua biltzen ditu, jarraian adierazitako mugarrietan laburbilduta; mugarri horiek ikerketarekin eta bikaintasunarekin duen konpromisoa islatzen dute.

PRISM ekintza bateratua koordinatzea, talde kalteberetan osasun mentaleko arazoak prebenitzeko.



HOPE4Kids proiektuan parte hartzen hasia, onkologian zainketa aringarri pediatrikoak sustatzera bideratuta.

Europar Batasunean minbiziari buruzko ezagutzasareak ezartzea gidatzen duen **JANE**ren dokumentu estrategikoan egindako ekarpena.



JAMRAI 2 proiektuaren urteko bilera antolatzea Bilbon, mikrobioen aurkako erresistentzian zentratuta.

Europako **THCS** partenariotzako lehendakariordetza, osasun- eta laguntza-sistemak eraldatzeko.



Europako **Osasun Datuen Esparruaren Erregelamendua (EHDS)** ezartzeko aktak prestatzen laguntzea.

Prostatoko minbizia bahetzeko pilotu bat abian jartzea Bilbo-Basurtu ESI, EuCanScreen proiektukoa.



Laguntza metodologikoa **Osasunaren Euskal Ituna** hedatzeko eta Osasun Sailaren plan estrategikoak diseinatzeko.

Bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteentzako **ibilbide asistentzial integratua** ezartzea 13 ESletan.



Gazteak **osasunean alfabetatzeko** Osakidetzaaren osagai anitzeko programa diseinatzea eta elkarrekin sortzea.

Erandioko Tokiko Osasun Sarea sortzen laguntzea, haurren obesitatea prebenitzeko.



Lan-eremuan sexu, genero, orientazio sexual eta LGTBI arrazoiengatiko **jazarpenaren aurkako protokolo** bat sortzea.



ERAKUNDEA

2.1. Gure nortasuna



XEDEA

Osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen antolaketan eta kudeaketan bikaintasuneko ikerketa egitea, ezagutza balio sozial eta ekonomikoa sortzera eta aplikatzera bideratuta.



IKUSPEGIA

Nazioartean erreferentzia den ikerketa aplikatuko eta translazionalako institutu bihurtzea, osasun-politika eta -zerbitzu berritzaileen garapena, ezarpena eta ebaluazioa sustatuko dituena.



BALIOAK



Goi-mailako zientzia



Konpromisoa, bokazioa eta pasioa



Ekitatea




Efizientzia



Jasangarritasuna eta malgutasuna

2.2. Organigrama

- Gobernu-organoak
- Zuzendaritza-organoak
- Organo aholkulariak
- Egitura zientifikoa
- Kudeaketa eta antolaketa



Biosistemak Institutuaren gobernu-organoak

BATZAR NAGUSIA

Institutuaren borondatea ordezkatzen duen organo subiranoa, lege- eta estatutu-esparruan ezarritako funtzioak betetzeaz arduratzen dena. Hauek osatzen dute:

- **Presidentetza**
Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
- **Presidenteordetza**
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia
- **Idazkaria-diruzaina**
Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioa (BIOEF)
- **Batzordekidetza**
EHUko Garapen Zientifiko-sozialeko eta Transferentziako Errektoreordetza

BATZORDE BETEARAZLEA

Batzar Nagusiak eskuordetutako gobernu-organo gisa jarduten du. Batzar Nagusia berezko eta izendapen askeko kideek osatzen dute, eta honako hauek barne hartzen ditu:

- **Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza**
- **Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza**
- **Berrikuntza, Ikerketa eta Osasunaren Euskal Fundazioko (BIOEF) I+G+B Kudeatzeko Zuzendaritza**

2.3. Egitura zientifikoa – Ikerketa arloak



OSASUN-ARLOKO ETA ARLO SOZIOSANITARIOKO POLITIKAK DISEINATZEA ETA EBALUATZEA

- Balioan oinarritutako arreta
- Osasun publikoko programak eta esku-hartzeak
- Eragin ekonomikoa eta aurrekontuetako eragina
- Irisgarritasuna, zuzentasuna, efektibitatea eta efizientzia



ANTOLAKETA-EREDUAK GARATZEA ETA EBALUATZEA

- Digitalizazioa eta garapen teknologikoak
- Ereduak eta ibilbide klinikoak garatzea
- Antolaketa-aldaketak inplementatzea



PROZESUAK ETA EMAITZAK AZTERTZEA ETA EBALUATZEA

- Zerbitzuen erabilera, aldagarritasuna eta egokitzapena
- Kalitatea, segurtasuna, atxikipena
- Emaidza klinikoak eta pazienteek hautemandakoak
- Efikazia, eraginkortasuna, kostuen azterketa



ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEA

- Datuen modelizazio eta analitika adimenduna
- Laguntza-tresnak
- Pazienteek emandako emaitzak eta herritarren ahalduntzea

2.4. Ikerketa-taldeak



OSASUN DIGITALA

IN: Dolores Verdoy Berastegui

Biosistemak Institutua



PRAKTIKA ASISTENTZIALARI BURUZKO DATUAK BERRERABILTZEKO IKERKETA-TALDEA

IN: Eduardo Millán Ortuondo

Osakidetzako Asistentzia
Sanitarioko Zuzendaritza
Zuzendaritza Nagusia



OSASUN-ZERBITZUAK

IN: Iñigo Gorostiza Hormaetxe

Bilbo-Basurtu ESla



BALIOAN OINARRITUTAKO ARRETA

IN: Borja García Lorenzo


Biosistemak Institutua



INPLEMENTAZIOA

IN: Ane Fullaondo Zabala

Biosistemak Institutua



GAIXOTASUN KRONIKOETARAKO OSASUN-ZERBITZUAK

IN: Jose M^a Quintana López

Barrualde-Galdakao ESla



BALIABIDEAK

3.1. Giza baliabideak

Biosistemak Institutua diziplina anitzeko talde batean oinarritzen da. Talde hori bertako langileek eta funtsezko erakundeei lotutako ikerketa-taldeei atxikitako ikertzaileek osatzen dute: **Osakidetza, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Osasun Saileko Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren Zuzendaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) eta Talde Kliniko Elkartu bat, Osakidetzaren 13 Erakunde Sanitario Integratueta (ESI), Azpiakutuen Ospitaleetako, Osasun Mentaleko Sareetako eta Larrialdi Zerbitzuetako profesional eta kudeatzaile sanitarioek osatua.**

Lankidetzaren egitura horri esker, ikerketa-proiektuei ikuspegi global eta integratuarekin ekiten zaie.

BERTAKO LANGILEAK

Bertako langileak **23** dira; haietatik % 80 emakumeak dira, eta % 20 gizonak.



ATXIKITAKO LANGILEAK



2025ean, Ikerketa Taldeei atxikitako **34 pertsonak** jardun zuten Institutuan.

TALDE KLINIKO ELKARTUA



Talde Kliniko Elkartuak **Osakidetzako 300 profesional inguru** biltzen ditu, ESletatik, Osasun Saitetik eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste erakunde batzuetatik etorriak, zeinek aktiboki parte hartu baitzuten ikerketa-proiektuetan.

3.2. Baliabide zientifiko-teknikoak

Biosistemak Institutuak hiru laguntza-plataforma ditu, ikerketa-proiektuak diseinatu, egikaritu eta hedatzen laguntzeko, eta proiektuen kalitatea, eraginkortasuna eta bikaintasuna ziurtatzeko Plataforma horien bidez, I+G+b arloko alderdi espezifikoak jorratzen dira, hala berrikuntza eta osasun-sistema eta zerbitzuetan ezagutza hedatzeko.



DATUAREN PLATAFORMA

- Datu-base handiak garatzea
- Osasunaren arloko informazio-sistemen ustiapena
- Erregistro kliniko eta administratiboetatik, kohorteetatik eta bizitza errealeko datuetatik datozen datuak kudeatzea, ikerketa-analisiak egiteko



PLATAFORMA METODOLOGIKOA

- Ikerketa, dokumentazio eta analisi estatistiko eta kualitatiboen diseinua eta garapena
- Emaita zientifikoak interpretatzea, aurkeztea eta zabaltzea
- Big Data, Real World Data, AA eta beste metodologia batzuen erabilera aurreratua ikerketa eta berrikuntzarako



PROIEKTUEN PLATAFORMA

- Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko joeren azterketa eta deialdien berrikuspena
- Osakidetzaren eta Osasun sailaren beharrak, ekimenak eta proiektuak identifikatzea
- Proposamenak diseinatzea, aurrekontu-plangintza egitea, Europako aliantzak kudeatzea eta gauzatze- eta txosten-koordinazioa
- Diseinu eta kudeaketarako metodologiak garatzea

3.3. Baliabide ekonomikoak

KANPOKO FINANTZAKETA ITURRIAK

2025ean, Biosistemak Institutuak bere finantza-iraunkortasuna sendotu du, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza izendunaren bidez jasotako laguntzari eta ekitaldiko emaitzari egotzitako kanpo-finantzaketari esker.



% 72

748.879€




% 21

213.518€



% 8

78.169€



BIOSISTEMAK INSTITUTUAREN EMAITZEN KONTUA

| | 2025 | 2024 |
|--|----------------------|----------------------|
| EKITALDIAREN SOBERAKINA | | |
| Berezko jardueragatiko sarrerak | | |
| Ekitaldiaren soberakinari egotzitako diru-laguntzak | 1.774.666 | 1.784.738 |
| Merkataritza jardueragatiko salmentak eta beste sarrerak/Zerbitzuen prestazioak | - | 8.900) |
| Langileengatiko gastuak | | |
| Soldatak, lansariak eta baliokidetuak | (948.818) | (897.107) |
| Gizarte Kargak | (289.572) | (272.752) |
| | <u>(1.238.390)</u> | <u>(1.169.859)</u> |
| Jardueragatiko bestelako gastuak | | |
| Kanpo zerbitzuak | (529.023) | (603.085) |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (1.391) | (6.123) |
| Ibilgetuaren besterentzeagatik gertatutako narriadura eta emaitza | - | (12.078) |
| Beste emaitza batzuk | - | 6.954 |
| JARDUERAREN SOBERAKINA | <u>5.862</u> | <u>9.447</u> |
| Finantza-sarrerak | | |
| Balio negoziagarrietatik eta bestelako finantza-tresnetatik eratorritakoa | 21.673 | 19.520 |
| Finantza-gastuak | | (50) |
| FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA | <u>21.673</u> | <u>19.470</u> |
| SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK | <u>27.535</u> | <u>28.917</u> |
| Mozkinen gaineko zergak | - | - |
| Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuengatiko ondare garbiaren aldaketa | <u>27.535</u> | <u>28.917</u> |
| GUZTIZKO EMAITZA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAN | <u>27.535</u> | <u>28.917</u> |

I+G+b JARDUERA

2025ean, Biosistemak Institutuak sendotu egin du nazioarteko, Estatuko eta autonomia-erkidegoko osasun-sistemen ikerketan duen lidergoa, eta zeregin garrantzitsuak bete ditu inpaktu handiko proiektuetan, osasunaren arloko erronka garaikideei heltzeko eta pertsonengan oinarritutako arreta hobetzeko, kalitateari, inklusibitateari eta jasangarritasunari dagokienez.



30
PROIEKTU AKTIBO
GUZTIRA



17
PROPOSAMEN
AURKEZTU DIRA



1.039.550 €
LEHIARAKO KANPO-
FINANTZAKETA



EUROPAKO **10**
PROIEKTU ABIAN



LANKIDETZA **600**
EUROPAKO
ERAKUNDEREKIN
BAINO
GEHIAGOREKIN



ESTATUKO **4**
PROIEKTU



EUSKO
JAURLARITZAREN **14**
PROIEKTU

4.1. Proiektuak

4.1.1. Europako proiektuak

2025ean, Institutuaren nazioarteko jarduerak **Osasunerako eta Digitalerako Europako Agentzia Exekutiboak (HaDEA)** kudeatutako funtsezko programetan parte hartzen jarraitu du, batez ere **Horizon Europe** eta **EU4Health** programen esparruan.

Biosistemak Europako sarea indartu du, **38 herrialde** baino gehiagoko **600 erakunderekin** baino gehiagorekin lankidetzan arituz eta **1.000 lankidetz**a baino gehiago metatuz proiektu, sare eta komunitate zientifiko berritzaileetan.

EGINDAKO ROLAK

Europako koordinatzailea:

Proiektuaren buru da eta solaskide nagusi gisa jarduten du Europako Batzordean.

Estatuko koordinatzailea:

Erantzukizuna bere gain hartzen du, agintari eskudun gisa, eta ekintza Espainiaren izenean gauzatzen du.

Bazkidea:

Nazioarteko lankidetzan parte hartzen du eta partzuergoaren barruan esleitutako zereginak garatzen ditu.

European Partnership on Transforming Health and Care Systems



2023ko urt. -
2029ko urr



300M €



Bazkidea



Osasun- eta laguntza-sistema jasangarriagoak eta pertsonengan zentratuagoak lortzeko trantsizioa bermatzea, ikerketaren eta berrikuntzaren bidez.



Europako osasun-ekosistemen artean jardunbide egokiak ezartzeko eta ezagutza trukatzeko sustatzeko esparru bat garatzea.



Osasun Saila-BIOEF (erakunde finantzatzailea), Biosistemak (erakunde ikertzailea).



HEALTH 4 EU kids
Your Kids' Health, Our Priority

Joint Action for Implementing of best practices and research results on Healthy Lifestyles for the health promotion and prevention of non-communicable diseases and risk factors



2022ko abe. –
2025eko abe.



3,7M €



Bazkidea



Osasunaren sustapenaren, prebentzioaren eta gaixotasun ez-kutsakorren kudeaketaren arloan komunitatean esku-hartzeak sustatzeko politikak garatzea.



Bizi-ohitura osasungarriak sustatzea eta haurren obesitatea prebenitzea, tokiko komunitateetan ekintza parte-hartzaileak eta egokituak eginez. Ongizatea eta osasunaren integrazioa hobetzea udal-politiketan.



“Grünau moves” jardunbide egokia ezartzea Erandion, Biosistemak eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza buru direla, bizimodu osasungarriak sustatzera eta testuinguru ahuletan haurren gehiegizko pisua prebenitzera bideratuta.



Joint Action on Cardiovascular Diseases and Diabetes



2023ko urr. - 2027ko ira.



66,2M €



Bazkidea



Osasuna sustatzeko eta prebenitzeko ekimenak abiaraztea, gaixotasun kardiobaskularren eta diabetesaren karga murrizteko.



Gaixotasun kardiobaskularrak eta diabetesa prebenitzeko eta tratatzeko ekimen eraginkorrak eskalatzeko ibilbide-orria diseinatzea. Zientziaren eta politikaren arteko lankidetzeta eta eragin partekatua sustatzea Europan.



Bihotz-gutxiegitasunaren arloko ibilbide asistentzial integratua implementatzea eta gazteentzako osasun-alfabetizazioko osagai anitzeko programa sortzea.



Joint Action on Extended EHR@EU Data Space for Primary Use



2023ko aza. – 2026ko api.



5,9M €



Bazkidea



Inplementazio-gidak, zehaztapen teknikoak eta ebaluazio-esparru bat sortzea, Historia Kliniko Elektronikoko Trukatze Europako Formatua ezartzeko, osasun-datuen lehen mailako erabilerari dagokionez.



Elkarreragingarritasuna eta datu kliniko elektronikoen truke segurua erraztea Europan. Osasun Datuen Europako Esparrurako estandar komunak eta ziurtapen-irizpideak ezartzea.



Europako esparruan telemedikuntzari eta historia kliniko elektronikoko sistemei buruzko betekizunak harmonizatze erabilera- eta lankidetzeta-kasuak definitzea.



Joint Action
Antimicrobial Resistance and
Healthcare-Associated Infections

Joint Action on Antimicrobial Resistance and Healthcare-Associated Infections 2



2024ko urt. -
2028ko abe.



62,5M €



Bazkidea



EBko politika komunak aplikatzea antimikrobianoekiko erresistentziaren aurka borrokatzeko eta osasun-laguntzarekin lotutako infekzioak kontrolatzeko.



One Health ikuspegia finkatzea arriskuen eta prebentzioaren kudeaketa integratuan, gizakien, animalien eta ingurumenaren osasunean koordinatutako ekintzekin. Ebidentzia zientifikoaren bidez erabaki politikoak har daitezzen babestea eta terapia eraginkorretarako sarbidea hobetzea.



Lidergoa aurrerapenaren, jardueren eta emaitzen adierazleak definitzean eta monitorizatzean, eraginaren ebaluazio zorrotza eta ekintzak European behar bezala aplikatzea bermatuz.



European Joint Action on Cancer Screening

Joint Action on the New EU Cancer Screening Scheme Implementation



2024ko eka. -
2028ko mai.



38M €



Bazkidea



European minbizia bahetzeko estrategia berriak ezartzea.



Europako baheketa-sistemak indartzea, osasun-arloko desberdintasunak murriztea eta emaitzak hobetzeko berrikuntza sustatzea.



Prostata bahetzeko pilotu bat hedatzea Osakidetzarekin batera, arriskuan oinarritutako ikuspegiak garatzea eta ebaluazio teknologikoa egitea eskualdeko programak optimizatzeke.



Joint Action on Mental Health Together



2024ko ira. -
2027ko ira.



7,5M €



Estatuko
koordinatzailea



Osasun mentaleko arazoek
karga murriztea, bai maila
personalean, bai biztanleriaren
mailan.



Europako politikak hobetzea,
"Osasun mentala politika guztietan"
ikuspegia txertatuz, tresna
digitalekin eta jardunbide
berritzaileekin.



Laguntza-ibilbideak definitzea eta
tresna digitalak erabiltzea,
bizitako esperientzia duten
pertsonek parte-hartze
aktiboarekin.



Joint Action on Networks of Expertise on Cancer



2024ko aza. -
2028ko aza.



50,7M €



Estatuko
koordinatzailea



Europako arreta onkologikoan
kalitatea eta ekitatea hobetuko duten
ezagutza-sareak ezartzea, funtsezko
erronkei aurre eginez, hala nola
minbizi konplexuari, biziraupenari eta
paziente gazteentzako arretari.



Gida klinikoak, kalitate-irizpideak,
eredu sanitario eta ekonomikoak,
hezkuntza-laguntza eta Europan
ikerketa eta politika onkologikoak
bultzatuko dituzten zazpi sare
sortzea.



Proiektutik harago, minbiziari
buruzko ezagutza-sareen
jasangarritasuna errazteko
mekanismoei buruzko ezagutza
eta ebidentzia ematea.



Prevention oriented Rights-based approach to Support Mental health in vulnerable population groups



2025eko ira. -
2028ko ira.



7,5M €



Europako
koordinatzailea



Osasun mentala sustatzea eta biztanleria kalteberarengan osasun mentaleko arazoak eraginkortasunez prebenitzea, jardunbide egokien transferentzia eta hedapena babestuz.



Nahasmendu mentalen zama murriztea talde kalteberetan, bizi-kalitatea eta ebidentzian oinarritutako zerbitzuetarako sarbidea hobetzea, eta osasun mentaleko politika integralak indartzea Europan.



Lidergoa Osakidetzaren BIZI programaren transferentzian eta hedapenean, suizidioa prebenitzeko Europako hainbat eskualdetan.

Holistic Oncological Palliative Care 4 Europe's Kids



2025eko urr. -
2029ko ira.



15M €



Bazkidea



Minbizian dauden aringarri pediatrikoen arretaren garapen koordinatua eta jasangarria sustatzea Europan, sarbidea hobetuz, desberdintasunak murriztuz eta prestakuntza-baliabideak eta egokitutako tresnak dituzten familiei eta profesionali lagunduz.



Ebidentzian oinarritutako Europako gidak, etxeko arretarako tresna digitalak, erabakitzeko eredu partekatuek eta pediatriako profesionalentzako prestakuntza-planak garatzea.



Osakidetzarekin lankidetzan aritzea etxeko arretari buruzko pilotuen hedapenean, soluzio digitaletan eta erabaki partekatuetan oinarrituta, eta gidarien jasangarritasun- eta ebaluazio-estrategietan lidergoa izatea.

4.1.2. Aurkeztutako Europako proposamenak


| | IZENA | HELBURUA | BIOSISTEMAK INSTITUTUAREN ROLA | ERAKUNDE FINANTZATZAILEA |
|--------------------|--|---|-----------------------------------|---|
| ImmPaThic | Immersive training systems to nurture empathic and ethical skills among health and care professionals working with vulnerable patients | Paziente kalteberak artatzen dituzten osasun-profesionalen artean enpatia eta etika indartzeko murgiltze-prestakuntzako sistemak garatzea. | Bazkidea |  |
| PHM in COPC | Population Health Management in community-oriented primary care: lessons learned from implementation in different countries | Population Health Management lehen mailako arreta komunitarioan hainbat herrialdetan ezartzeari buruz ikasitako lezioak aztertzea eta partekatzea. | Bazkidea |  |
| IDARE2CARE | Enhancing Quality of Life and Health for People with Intellectual Disabilities through Improvement of Cardiovascular Care | Adimen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea, arreta kardiobaskularra hobetuz. | Bazkidea |  |
| IMPRESS | IMPlimentation Research for Equitable, Sustainable and Strengthened health systems | Osasun-sistemak indartzeko estrategiak ezartzeari buruzko ikerketa, osasun-arreta eta -emaitzak ekitatiboak eta kalitate handikoak izan daitezen lortzeko, gaixotasun ez-kutsakorren testuinguruan. | Europako koordinatzailea |  |
| AURORA-IR | Adaptive Research for Equitable NCD access in Underserved Populations through AI-enabled Interventions | Pakete jasangarri eta ekitatibo bat eskaintzea, arrisku-egoeran edo etxegabetasun-egoeran dauden pertsonengan gaixotasun ez-kutsakorrek prebenitzeko eta kudeatzeko. | Bazkidea |  |
| AURA | Creative Pathways for violence prevention, youth empowerment and mental wellbeing | Gazteen arteko eta aurkako indarkeria «errotik» prebenitzea, indarkeriaren eta osasun mentalaren arteko loturetan eta ludopatiaren eta portaera arriskutsuen lehen zantzuetan oinarrituta. | Bazkidea |  |

2026 urterako prestatzen ari garen Europako proposamenak

| | | | |
|--|---|---|---|
| <p>Klima-aldaketak osasunean dituen eraginak hobeto ulertzeko eta haien aurrea hartzeko</p> |  <p>Tresna aurreratuak garatzea klima-aldaketaren ondorioz larriagotu egiten diren gaixotasun ez-kutsakorrekin lotutako gertaeren arriskua iragartzeko, klimarekin lotutako osasun-arriskuen ulermenean sakonduz eta datu klinikoaren eta ikerketa-datuaren eskuragarritasuna eta kalitatea hobetuz.</p> |  |  <p>Europako koordinatzailea</p> |
| <p>Jokabidezko esku-hartzeak, hala nola transmititu ezin diren gaixotasunen lehen mailako prebentzioa gazteen artean</p> |  <p>Epe luzera jardura fisikoetan eta portaera osasungarrietan parte hartzea sustatzea, ebidentzian oinarritutako jokabide-esku-hartzeak tresna berritzaile eta erabilerrazekin eta autokontrolerako eta autokudeaketarako tresna digitalekin integratuz.</p> |  |  <p>Bazkidea</p> |
| <p>Osasun- eta asistentzia-sistemetan balio txikiko arreta identifikatzea eta jorratzea</p> |  <p>Balio txikiko osasun-arreta sistematikoki identifikatzea, sailkatzea eta aztertzea Europan, ebidentzian oinarritutako desinbertsioa eta baliabideen berresleipen eraginkorra babestuz, analisien eta erabakitze bidez.</p> |  |  <p>Bazkidea</p> |
| <p>Bizitza osasungarri baterako prebentzioa bultzatzea bizitza osoan, populazio-baheketak barne, gaixotasun kardiobaskularrei arreta berezia eskainiz</p> |  <p>Bizitza osoko prebentzio kardiobaskularra eta diabetesaren prebentzioa indartzea, EBko Osasun Kardiobaskularreko Planarekin bat etorritik, datu enpirikoetan, ekitatiboetan, pertsonalizatu eta prebentzio primarioarako, detekzio goiztiararako eta baheketarako digitalki gaitutako datuetan oinarritutako ikuspegiak sustatuz, eta, aldi berean, epe luzean, epe luzean jasangarritasuna sustatzen da osasun-sistema guztietan.</p> |  |  <p>Bazkidea</p> |

4.1.3 Estatuko proiektuak

Osasun Ekintza Estrategikoko proiektuak – Carlos III.a Osasun Institutua



4.1.3. Carlos III.a Osasun Institutura aurkeztutako proposamenak

BGBK duten pazienteen ongizaterako baliabideak indartzeko esku-hartzea ebaluatzea eta faktore salutogenikoak identifikatzea



4.1.5. Aurreproposamena Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteari (AECC)

IZENA

HELBURUA

BIOSISTEMAK
INSTITUTUAREN ROLA

ERAKUNDE
FINANTZATZAILEA

**Doitasunezko
gastronomia
gomendatzeko
sistema minbizia
gainditu duten
pertsontzat**

Minbizia gainditu duten pertsonentzako nutrizio- eta gastronomia-gomendioen sistema bat garatzea eta baliozkotzea, parametro klinikoak, metabolikoak, dietetikoak, bizi-estilokoak eta tratamendu onkologikoaren ondoriozko albo-efektuak integratuz, nutrizioa optimizatzeko, arrisku-faktoreak murrizteko eta pazienteei erabaki dietetiko seguruak eta ebidentzian oinarrituak hartzen uzteko.

Proiektuaren
koordinatzailea



4.1.5. Eusko Jaurlaritzaren proiektuak (ZTBP 2030)

OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUAK (KOORDINAZIOA)

- 1 Emaizta txarren arrisku-faktoreak bularreko minbiziaren kohorte batean
- 2 Balioan oinarritutako arretan balioaren ekuazioa argitzen
- 3 Bilakaera txarra larrialdietan artatutako 65 urtetik gorako pazienteetan
- 4 Antibiotikoen erabilerarekin lotutako kontrako gertaeren alarmak monitorizatzea
- 5 Lehen mailako arretaren indarguneek hilkortasunean eta saihestu daitezkeen ospitaleratzeetan duten eragina
- 6 Populazioaren araberako arrisku-estratifikazioa: paziente pluripatologikoari arreta emateko ibilbide asistentzial korporatiboaren eraginkortasuna ebaluatzea Osakidetzan



OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUAK (LANKIDETZA)

- 7 Euskadiko IMPaCT kohorte: Zientzia eta teknologiarik lotutako doitasun-medikuntzako azpiegitura
- 8 COVID-19aren eragina haurren, nerabeen eta gazteen osasun mentalean
- 9 Anorexia nerbioari aurre egiteko estrategia terapeutikoak
- 10 Biriketako funtzioaren, asmaren eta BGBKren eragina helduengan
- 11 Euskohorte: doitasun-medikuntzako eta populazio-oinarriko azpiegitura
- 12 Preskripzio farmakologikoa murrizteko inplementazio-estrategien ebaluazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EITB MARATOIA PROIEKTUAK

13

Barrualde-Galdakao ESIko esklerosi anizkoitzaren epidemiologia

14

Erreserba kognitiboaren inpaktua esklerosi anizkoitza duten pazienteen kohorte batean

eitb

MARATOIA

4.1.6. Eusko Jaurlaritzaren proposamenak

OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROPOSAMENAK (KOORDINAZIOA)

- 1 Zainketa aringarrien beharra goiz detektatzea adimen artifizialeko tekniken bidez
- 2 SepsisIA: AAn oinarritutako sepsiaren alerta goiztiarreko sistema berritzaile baten inplementazioa eta kanpo-balidazioa
- 3 Bularreko edo kolon eta ondesteko minbizia duten pazienteen esku-hartze multimodalaren ebaluazioa, bizi-kalitatea hobetzeko

OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROPOSAMENAK (LANKIDETZA)

- 4 EGONSAPD proiektua - Dosifikazio pertsonalizatuko sistema automatizatuak egiteko bideratutako sendagaien egonkortasunaren azterketa
- 5 Doitasun-medikuntza gaixotasun neuromuskular minoritarioetan: diagnostiko genetikoaren optimizazioa konpondu gabeko paziente neuromuskularren kasuan eta azido nukleikoen bidezko terapietarako sarbidea
- 6 Datutik erabakira: Berranalisi sistematikoa eta balidazio funtzionala, gaixotasun arraroen interpretazio genetiko integrala eta diagnostiko zehatzagoa egiteko
- 7 Adimen artifizialean oinarritutako intubazio-eredu prediktibo zail baten kanpo-balidazioa
- 8 Barrualde-Galdakaoko ESiko ZIUko paziente kritikoen familien gela bat sortzea eta ebaluatzea



EITB MARATOIAREN 2025EKO PROPOSAMENA

9

Iktus osteko zefalea iraunkorra. Aurretik dauden faktoreak ezaugarritzea eta identifikatzea. Koordinatzailea: Biobizkaia

 eitb

MARATOIA

4.2. Sareak eta lankidetzak

4.2.1. Kronikotasunaren, Lehen Mailako Arretaren eta Osasunaren Prebentzio eta Sustapenaren Ikerketa Sarean (RICAPPS) parte hartzea



Estatuan, lehen mailako arretan, kronikotasunean eta osasunaren sustapenean osasun-emaitzetara bideratutako sareko ikerketa sustatzea.



22
IKERKETA-
TALDE



11 AUTONOMIA
ERKIDEGOREN
PARTAIDETZA



ESTATUKO
BIZTANLERIAREN
% 90,2
OESTALTZEN DU

BIOSISTEMAK INSTITUTUAK GIDATUTAKO IKERKETA-TALDEAK:

BARRUALDE-GALDAKAO ESIA

- Ikertzaile nagusia: Susana García
- Ikerketa-ildoak: Lehen mailako arreta, kronikotasuna eta osasunaren sustapena.

BILBO-BASURTU ESIA

- Ikertzaile nagusia: Amaia Bilbao
- Ikerketa-ildoak: Asistentziaren kalitatea hobetzea eta gaixotasun kronikoak prebenitzea.

4.2.3. Beste proiektu eta lankidetzak



WHO

European Centre for Primary Health Care and Mental Health



European Observatory On Health Systems & Policies

Policy Dialogues



OECD

“PROMS Breast Cancer Working Group” taldearen bazkide metodologikoa



EUREGHA

Lantaldeetan parte hartzea (minbizia, digitala)



European Institute of Innovation and Technology in Health

Berrikuntza-proiektuen batzorde ebaluatzailea



International Consortium for Health Outcomes Measurement

Batzorde zientifikoetan eta aholku-batzordean parte hartzea



Health System Sustainability & Resilience

Osasun-sistemak indartzeko finantzaketari buruzko gomendioak



Osasun Ministerioa, Espainiako Gobernua

Minbiziari buruzko estrategiaren jardunbide egokiak ebaluatze taldea



Asistentziaren Kalitatearen Espainiako Elkarte (SECA)

Balioan oinarritutako arreta ezartzeko gidak diseinatzen laguntzea



Jakindari. Kultura zientifikoaren aldeko aliantza

Atxikimendua eta komunitate praktikoa



Deusto Business School Executive

Aditu eta berrikuntza sanitarioko programa

4.3. Komunikazioa eta hedapena

4.3.1 Jardunaldi, kongresu eta ikastaroetan parte hartzea

- 1st European Public Health Economics Conference
- 25th International Conference on Integrated Care
- International Cancer Screening Network Conference 2025
- 46th Annual Conference of the International Society for Clinical Biostatistics
- Value-based Healthcare Conference (ICHOM 2025)
- 18th European Public Health Conference 2025
- European Implementation Event 2025
- CCI4EU Third Capacity Building Conference
- Osasun Digitalari buruzko Nazioarteko XII. Biltzarra
- Bioestatistikari buruzko Espainiako XX. Konferentzia
- Laguntzaren Kalitateari buruzko Espainiako Elkartearen XLI. Biltzarra
- Pazientearen Esperientziaren VI. Kongresua
- Osasunaren Ekonomia Elkartearen (AES) XLIV. Jardunaldiak
- Asistentziaren Kalitatearen Madrilgo Elkartearen XIII. Jardunaldi Zientifikoa
- RICAPPS IV. Jardunaldiak
- Osasun Kudeaketako XI. Programa Aurreratua (IESE, Novartis)
- Osasun Politikako eta Farmakoekonomiako X. Aritu Programa (CRES-UPF)
- Kudeaketa Kliniko eta Sanitarioko VI. Tailerra (GestionAES)
- Osasun Politikak eta Zerbitzuak Ebaluatzeko XV. Ikerketa Tailerra
- RICAPPS Saio Zientifikoen Zikloa
- Jakindariko Komunitate Praktikoak

4.3.2. Webgunea



17.237

IKUSITAKO
ORRIAK, GUZTIRA



2.935

ERABILTZAILE
AKTIBO



1'47''

BATEZBESTEKO
INTERAKZIO-DENBORA




141.000

INPRESIO



8.011


AGERPEN
BILAKETETAN

+% 3,8 vs. 2024 

4.3.3. Albisteak



60
ALBISTE
ARGITARATU DIRA



2024AN BAINO
% 58 
ALBISTE GEHIAGO



80 aditu inguru biltzen dira Bilbon JA PRISM hasiera ekitaldian



HOPE4Kids hasiera: lankidetza minbizia duten haurrentzako zainketa aringarrietan




EU-JAMRAI 2ren bileraren arrakasta Bilbon, Biosistemak elkarrekin antolatuta



BIOEFek eta Biosistemak-ek THCSaren lehendakaritza eta lehendakariordetza hartzen dute



Health4EUKids proiektuaren aurrez aurreko bilera berri batean parte hartzen dugu




Osasun Publikoari buruzko 18. Europako Konferentzia, JACARDI proiektuarekin



Bihotz-gutxiegitasuna duten pertsonentzako laguntza-ibilbidearen aurkezpena



Institutuak Bruselako Osasun Mentalarri buruzko Ekitaldi Politikoan parte hartzen du



Euskadiko paziente kronikoak artatzeko eredua aurkezten dugu OMEn





Biosistemak, 2025eko OEEren Jardunaldien Batzorde Zientifikoaren parte

4.3.4. Sare sozialak



1569
JARRAITZAILE




URTEBETEAN
% 62 
JARRAITZAILE
GEHIAGO




4.3.5. Prentsan izan duen eragina



11
INPAKTU
HEDABIDEETAN



22
AIPAMEN
GUZTIRA




Eusko Jaurlaritzak ingurune osasungarriak sustatzeko europar proiektu bat bultzatu du Erandion



12.000 pazientek hartzen dute parte osun-ekosistemaren osun-arloko ikerketa-proiektutan



Europak bat egin du Bilbon antibiotikoen eraginkortasuna zaintzeko eta osasuna babesteko



Gizarte-maila baxuko gazteek bi bider aukera gehiago dituzte buru-nahasmendua izateko



“Osasun-sistemak arreta pazientearengan zentratua bermatuko duen teknologia behar du”



Osasun-datuak erabilera eraginkorrek arreta hobetzea eta ikerketa bultzatzea ahalbidetuko du



Eusko Jaurlaritzak Euskadiko biozientzien eta osasun teknologien ekosistema sustatuko du Estatu bioteknologia azoka garrantzitsuenean



Euskadik proiektuan parte hartuko du, pediatriako zainketa aringarrietan aurrera egiteko



Euskadik Estatu bioteknologia azokarik garrantzitsuena hartuko du 2026an



Osakidetza WhatsApp kanal bat abiaraziko du 2026an eta akordio-kopurua murriztuko du



Osakidetza Euskal Osasun Ituneko neurrien erdia baino gehiago aktibatu ditu lehen sei hilabeteetan





EMAITZAK

5.1. Ekoizpen zientifikoa

2025ean, Biosistemak Institutuak **56 argitalpeneko** ekoizpen zientifikoa lortu zuen, 238,4ko Inpaktu-Faktore Metatuarekin (IFM).



52
IFM: 184,1

ARTIKULUAK



2
IFM: 13,1


BERRIKUSKETAK



2
IFM: 41,2

KONGRESUETARAKO LABURPENAK

2020tik 2025era bitartean argitalpenen eta IFMren hazkundea.




Argitalpenak kategoriaren arabera

Institutuaren argitalpenen bilakaera, 2021etik 2025era.



Kuartilak

2025ean, argitalpenen % 58,9 lehen kuartilekoak (Q1) izan dira, eta % 23,2 bigarren kuartilekoak (Q2).



Aldizkari azpimarragarriak

Institutuak 13 aldizkari zientifikotan argitaratu du 2025ean zehar. Honako hauek nabarmendu nahi ditugu, guztiak lehen kuartilekoak (Q1).

| | | IFM | | | IFM |
|---|----------------------------------|------|---|---------------------------------------|-----|
|  | Annals of the Rheumatic Diseases | 41,2 |  | Clinical Nutrition | 7,4 |
|  | Hepatology | 16,8 |  | Neurocomputing | 6,5 |
|  | GeroScience | 10,8 |  | Epidemiology and Psychiatric Sciences | 6,1 |
|  | Molecular Psychiatry | 10,1 |  | BMJ Global Health | 6,1 |
|  | Esmo Open | 8,3 |  | Value In Health | 6 |

5.2. Euskal osasun-sisteman duen eragina



- Balioaren estrategia korporatiboaren ibilbide-orria
- Populazio-estratifikazio berri garatzea
- Laguntza-ibilbide integratuak (PPP, IC eta BGBK) hedatzen laguntzea
- Depresiorako terapia kognitibo konduktualaren hedapen korporatiboa
- Polifarmazia optimizatzekeo tresna
- Nerabeentzako programa psikohezitzailea



- Udako ikastaroen zuzendaritza (balioan eta osasunaren ekonomian oinarritutako arreta)
- Osasun Publikoko Masterreko irakaskuntza
- Nazioarteko Osasun Digitalari buruzko Biltzarra
- EKAIako Argitalpen Batzordea



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

- 2030eko Osasun Planaren Monitorizazio Batzordea
- Euskadiko 2030erako Plan Onkologiko Integrala
- Bigarren mailako erabilerarako Osasun Datuetara Sartzeko Euskal Erakundea
- Plangintza estrategikoan eta Osasunaren Euskal Itunaren hedapenean laguntzea
- EUREGHA sarean parte hartzea



ERANSKINA

6.1. Argitalpen zientifikoak

1. Mestre D, Orive M, Gascon M, Bilbao Gonzalez A, Erkoreka L, Gonzalez N et al. Adaptation into Basque language and validation of the Barthel Index, EQ-5D-5L and PHQ-9 questionnaires in adult patients. *Curr. Psychol.* 2025; 44(4):2548-2557.
2. Aymerich C, de Pablo GS, Pacho M, Perez Rodriguez V, Bilbao A, Andres L et al. All-cause mortality risk in long-acting injectable versus oral antipsychotics in schizophrenia: a systematic review and meta-analysis. *Mol. Psychiatr.* 2025; 30(1):263-271.
3. Pournik O, Mukherjee T, Abbasi SF, Ding X, Bai L, de la Torre Pardos J et al. Analysing the Association Between User Perceptions and Usage Patterns of Digital Personalised Care Platforms Using the UTAUT Framework: Insights from the ADLIFE Project. *Stud Health Technol Inform.* 2025; 328469-473.
4. Abad Plou E, Iburguengoitia Barrena O, Enjuanes M, Gonzalez Mozo G, Alvarez J, Galindez Agirregoikoa E et al. ANALYSIS OF INMUNOSUPPRESSIVE TREATMENT IN INFLAMMATORY MYOPATHIES: A THERAPEUTIC CHALLENGE. *Ann. Rheum. Dis.* 2025; 841666-1667.
5. Cruces Salguero S, Sol J, Larrañaga I, Pamplona R, Mar J, Jove M et al. Analysis of sex-specific disease patterns associated with human lifespan. *GeroScience.* 2025; 47(3):2639-2654.
6. Guerrero BV, Steindorf V, Blasco Aguado R, Mateus L, Cevidanes A, Barandika JF et al. Assessing the spatio-temporal risk of Aedes-borne arboviral diseases in non-endemic regions: The case of Northern Spain. *PLoS Negl Trop Dis.* 2025; 19(7):
7. Martín Fernández J, Alonso Safont T, Polentinos Castro E, Rodríguez Martínez G, González Anglada MI, Bilbao González A et al. Association between hypertension and self-perception of health status: Findings from a decade population-based survey in Spanish adults. *PLoS One.* 2025; 20(5):
8. Gorostiza A, Cacicedo J, Alayo I, Frias A, Baena PC, Camiña IG et al. Basing healthcare decisions on value: patient-reported outcomes for patients diagnosed with breast cancer in a European cohort. *Eur. J. Public Health.* 2025; 35(5):835-843.

9. Rueda B, Aonso Diego G, Aguirre U, Herrero M, Estévez A. Borderline Personality and Substance Use Disorder: the Role of Attachment Styles and Mindfulness. *J. Psychopathol. Behav. Assess.* 2025; 47(3):
10. Cruces Salguero S, Larrañaga I, Mar J, Matheu A. Centenarians of the Basque Country are resilient to cancer. *GeroScience.* 2025; 47(2):2309-2315.
11. Rodríguez Idiazabal L, Quintana JM, García Asensio J, Legarreta MJ, Larrea N, Barrio I. Clinically meaningful phenotypes among SARS-CoV-2 reinfections: Informing prevention strategies for future pandemics. *Prev. Med.* 2025; 193108259-108259.
12. Llopis Cardona F, Rodríguez Bernal CL, Hurtado I, Espallargues M, García N, Gorostiza I et al. Contemporary pharmacological management of patients after hip fracture: a population-based cohort of over 120,000 patients in Spain. *Osteoporosis Int.* 2025; 36(8):1405-1415.
13. Domínguez Ayala M, Bilbao González A, Mínguez Gabiña P, Expósito Rodríguez A, Rodeno Ortiz de Zarate E. Contribution of I-131 SPECT/CT uptake on the dynamic risk assessment of papillary thyroid cancer. *Quant. Imaging Med. Surg.* 2025; 15(4):2682-2693.
14. Gorostiza I, Bilbao Gonzalez A, Mar J. Cost-effectiveness of direct oral anticoagulants in non-valvular atrial fibrillation. *Gac. Sanit.* 2025; 39102451-102451.
15. Nunnink M, Ballester L, Vilagut G, Alayo I, Mortier P, Almenara J et al. Depression and anxiety: A 3-year follow-up study of associated risk and protective factors among university students. *J. Affect. Disord.* 2025; 391120058-120058.
16. Pérez Izquierdo T, Barrio I, Esteban C. Dynamic prediction of death risk given a renewal hospitalization process. *Stat. Methods Med. Res.* 2025;
17. Apodaka Biguri M, Simao AL, Gonzalez Romero F, Mestre D, Rodrigues PM, Aurrekoetxea I et al. E2F2 transcription factor promotes a cholestatic MASH phenotype by regulating hepatobiliary metabolism through miR-34a-5p. *Hepatology.* 2025;
18. Xu YH, García Lorenzo B. Economic evaluation of wearable fitness trackers versus metformin for preventing type 2 diabetes in the UK population. *Bmc Digital Health.* 2025; 3(1):
19. Ramallo Fariña Y, Del Pino Sedeño T, Pinto Robayna B, Capafons Sosa JI, Cuesta Rubio M, García Bello MA et al. Effectiveness and cost-effectiveness of an online school-based programme to reduce eating disorder risk factors in preadolescents (PRETA): protocol for a cluster-randomised controlled trial. *BMJ Open.* 2025; 15(10):

20. Quintana JM, Larrea N, Menendez L, Legarreta MJ, Gascon M, Garcia Asensio J et al. Effectiveness of drugs employed in the treatment of COVID-19: real-world evidence. *Expert Rev. Respir. Med.* 2025; 19(5):493-498.
21. Skogberg N, Spadea T, Armocida B, Zaletel J, Formenti B, Fullaondo A et al. Embedding equity and diversity principles in a complex multinational setting: methods, tools, capacity development and experiences from the first year of the Joint Action on Cardiovascular Diseases and Diabetes (JACARDI). *BMJ Glob Health.* 2025; 10(11):
22. Iparragirre A, Quintana López JM, Barrio I. Evaluating AUC estimators across complex sampling designs: insights from COVID-19 patient data. *BMC Med. Res. Methodol.* 2025; 25(1):192-192.
23. Larrea N, Lee DJ, Barrio I, Arostegui I, Millan E, Quintana JM. Evaluating short-term forecast accuracy across COVID-19 waves using penalized spline models. *Int. J. Med. Inform.* 2025; 204106079-106079.
24. Garcia Y, Larrea N, Martin J, Bolinaga I, Sarasqueta C, Perales A et al. Evaluation of clinical outcomes after an intervention in malnourished hospitalized patients. *Clin. Nutr.* 2025; 5442-52.
25. Larrañaga I, Mar J, Gorostiza A, García Lorenzo B, Zubeltzu B, Vega R et al. Evaluation of the epidemiological and economic impact of the ADLIFE intervention on medium- to long-term in patients with advanced chronic disease. *Front. Public Health.* 2025; 131682492-1682492.
26. Cruz Garcinuño M, Martínez Sabater A, Cobos Rincón A, Czapla M, Sarmiento Iglesias C, Polo Andrade E et al. Exploratory Evaluation of Potential CRP and Ferritin Thresholds and Survival in Critically Ill Patients: A Pilot Prospective ICU Study. *J Clin Med.* 2025; 14(22):
27. Martinez Garcia M, Garcia Gutierrez S, Barreñada L, Inza I, Lozano JA. Extending the learning using privileged information paradigm to logistic regression. *Neurocomputing.* 2025; 615
28. Cano A, Esteban C, Larrea N, Iriberry M, Sánchez R, Jiménez Puente A et al. Factors associated with short- and medium-term mortality after hospitalization for COPD exacerbation. *Respir. Med.* 2025; 240108010-108010.
29. Casali PG, Antoine Poirel H, Berrocoso S, Blay JY, Dubois T, Ferrari A et al. Health networking on cancer in the European Union: a 'green paper' by the EU Joint Action on Networks of Expertise (JANE). *ESMO Open.* 2025; 10(2):104126-104126.

30. Rodriguez Idiazabal L, Fernandez D, Quintana JM, Garcia Asensio J, Legarreta MJ, Larrea N et al. Identifying clinically useful COVID-19 population and emergency department phenotypes across the pre-Omicron and Omicron periods. *Arch. Public Health.* 2025; 83(1):
31. Alayo I, Pujol O, Alonso J, Ferrer M, Amigo F, Portillo Van Diest A et al. Identifying most important predictors for suicidal thoughts and behaviours among healthcare workers active during the Spain COVID-19 pandemic: a machine-learning approach. *Epidemiol. Psychiatr. Sci.* 2025; 3428-28.
32. Urkia Susin I, Jauregui DRFD, Maiz E, Mazquiaran Bergera L, Guenetxea Gorostiza J, Martinez O. Impact of baseline fruit and vegetable intake on dietary changes following nutritional counseling in pregnant women: Analysis from a quasi-experimental study. *Nutrition.* 2025; 138112801-112801.
33. Rodriguez Lago I, Aguirre U, Cabriada JL, Ungaro RC, Colombel J, Acosta MB et al. Increased Medication Utilization Precedes Incidentally Diagnosed Inflammatory Bowel Disease: A Multicenter, Case-Control Study. *Am. J. Gastroenterol.* 2025; 120(6):1391-1394.
34. Alcaide Garcia J, Boughanem H, García Aranda M, Rivas Ruiz F, Aguirre U, García DM et al. Long-term prognostic implications of type 2 diabetes mellitus in colorectal cancer patients. *Colorectal Dis.* 2025; 27(10):
35. Garcia Aranda M, Abitei C, Martin Garcia D, Funez R, Rivas Ruiz F, Robles Lasarte M et al. Long-term prognostic value of apoptotic index in colorectal cancer: a 5-year multicentre cohort study. *Pathology.* 2025; 57(4):443-449.
36. Pikatza Huerga A, Almeida A, Quiros R, Larrea N, Jose Legarreta M, Zulaika U et al. Machine learning approaches for predicting heart failure readmissions. *Postgrad. Med. J.* 2025; 101(1202):1351-1360.
37. Garcia Zamalloa A, Arnay R, Castilla Rodriguez I, Mar J, Gonzalez Cava JM, Ibarrodo O et al. Machine learning for predicting the diagnosis of tuberculous versus malignant pleural effusion: External validation and accuracy in two different settings. *PLoS One.* 2025; 20(9):
38. Espinosa Moreno JC, Garcia F, Mas Bilbao N, Garcia Gutierrez S, Legarreta Olabarrieta MJ, Lee D. Modelling in-hospital length of stay: A comparison of linear and ensemble models for competing risk analysis. *PLoS One.* 2025; 20(8):

39. Gonzalez Mozo G, Dominguez LML, Lorenzo NA, Barrena OI, Seisedos DM, Ruibal Escribano A et al. Multicenter study on the use of upadacitinib in the Basque Country (UPA pro project): Results in RA patients previously treated with baricitinib. *Ann. Rheum. Dis.* 2025; 84
40. Guenetxea Gorostiza J, Rada Fernandez de Jauregui D, Apraiz Sanchez I, Mazquiarán Bergera L, Urkia Susin I, Maiz E et al. Nutrient intake and fruit and vegetable offering in baby-led weaning compared with parent-led weaning in healthy 6-to 13-month-old infants: A systematic review and meta-analysis. *Nutrition.* 2025; 137112812-112812.
41. Martin Garcia D, Garcia Aranda M, Varela Moreno E, Padilla Ruiz M, Zarcos Pedrinaci I, Rivas Ruiz F et al. Patient-attributable delay and its impact on two-year survival in breast cancer: A multicenter prospective cohort study. *Eur. J. Surg. Oncol.* 2025; 51(8):110280-110280.
42. Pournik O, Mukherjee T, Panchal S, Abbasi SF, de la Torre Pardos J, Verdoy Berastegi D et al. Patients vs. Healthcare Providers: A Comparative Analysis of Technology Acceptance Using the UTAUT Model. *Stud Health Technol Inform.* 2025; 327383-387.
43. Bruno AM, Allshouse AA, Saad A, Subramaniam A, Saade GR, Benson M et al. Postpartum Pharmacologic Thromboprophylaxis and Venous Thromboembolism in a US Cohort. *Obstet. Gynecol.* 2025; 145(3):265-272.
44. Arenas V, Muñoz E, Barroeta A, Oreja M, Aguirre U, Erkoreka L. Prevention of Violence in an Acute Psychiatric Unit: Spanish Validation of the Brøset Violence Checklist and Assessment of Its Predictive Capacity for Physical Restraint. *J. Psychiatr. Ment. Health Nurs.* 2025; 32(4):975-985.
45. Fernández Rivas A, Garamendi Ibarra B, Galende Llamas I, Belaustegi M, Sesma Pardo E, Kerexeta Lizeaga I et al. Programa "Resiliencia y Curriculum socioemocional para alumnado adolescente": enseñanza de DBT STEPS-A en centros escolares del País Vasco. Resultados en la Promoción y Prevención de la Salud Mental tras el primer año de implantación. *Revista De Psiquiatría Infanto-Juvenil.* 2025; 42(4):5-13.
46. Bilbao Gonzalez A, Gonzalez Saenz de Tejada M, Ferrer M, Ramallo Fariña Y, Paja Fano M, García Forero C et al. Psychometric properties of the EQ-5D-5L in diabetes mellitus patients in Spain. *J. Patient-Rep. Outcomes.* 2025; 9(1):60-60.

47. Erkoreka L, Ozamiz Etxebarria N, Ruiz O, Prieto M, Aspiazu S, Mingo A et al. Reported severity of psychotic, depressive and anxiety symptoms in relation to bilingual language profile: An exploratory study and the validation of Basque versions of the PQ-B, DASS-42, PHQ-9 and GAD-7. *PLoS One*. 2025; 20(3):
48. Rius Bilbao L, Aguirre Larracochea U, Valladares Gomez C, Mar J, Mar Medina C, Phi Basque Study GRP. Role of prostate health index (PHI) in prostate cancer screening: cost minimization analysis through simulation modelling. *World J. Urol.* 2025; 43(1):504-504.
49. Mar Barrutia L, Larranaga I, Chart Pascual JP, Zorrilla I, Abejas Diez D, Gomez Prieto A et al. Short Research Article: Independent association between household income and family adversity and bipolar disorder in adolescence and young adulthood - a registry-data study in the Basque Country. *Child Adolesc. Ment. Health*. 2025; 30(4):392-396.
50. Zumeta Olaskoaga L, Ibarondo O, Del Pozo R, Zapiain A, Larrañaga I, Mar J. The Excess Direct Social Costs of Dementia-Related Neuropsychiatric Symptoms: A Regionwide Cohort Study Beyond Silos. *Value Health*. 2025; 28(4):536-544.
51. Galindez Agirregoikoa E, Prieto Pena D, Garcia Vivar ML, Otano JMB, Joven Ibanez B, Vergara Dangond C et al. Treatment with Upadacitinib in Difficult-to-Treat (D2T) Psoriatic Arthritis (PsA): A National Multicenter Study of the First 134 Patients in Clinical Practice. *Sci*. 2025; 7(2):
52. Tulinayo FP, Ortega Gil A, González N, Erreguerena I, Perea BL, Saralegui I et al. Understanding Complexities in Collaborative Management of Knowledge on Advance Care Planning for Multimorbid Patients Within Personalized Integrated Care. *J. Healthc. Inform. Res.* 2025; 9(2):220-245.
53. Rodriguez Idiazabal L, Martinez Beneito MA, Quintana JM, Garcia Asensio J, Legarreta MJ, Larrea N et al. Understanding the COVID-19 pandemic through bayesian spatio-temporal modeling of several outcomes. *Spat. Spatio-Temporal Epidemiol.* 2025; 54100737-100737.
54. Pournik O, Mukherjee T, Abbasi SF, de la Torre Pardos J, Moro Delgado A, Verdoy Berastegi D et al. Understanding User Experiences on Patient Empowerment and Personalised Care Platforms: A Longitudinal Analysis Through the Extended UTAUT Model. *Stud Health Technol Inform.* 2025; 323339-343.

55. Mestre D, Orive M, Gascon M, Bilbao González A, González Hernández N, Dorado Arenas S et al. Validation of Basque "Test of Adherence to Inhalers" in Asthma and Chronic Obstructive Pulmonary Disease. *Patient Prefer. Adherence*. 2025; 194051-4061.
56. Del Pino R, de Echevarria AO, Diez Cirarda M, Ustarroz Aguirre I, Caprino M, Liu J et al. Virtual coach and telerehabilitation for Parkinson's disease patients: vCare system. *J. Public Health-Heidelberg*. 2025; 33(7):1583-1596.

